

AZKOITIA. Kultura. Gazteen Liburuaren Eguna ospatuko dute. Aizkibel liburutegiak haur literaturaren inguruko zenbait ekitaldi antolatu du

N. Exposito

Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko eguna dela eta, Aizkibel Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu du haurrak liburutegira erakartzeko asmoarekin. Apirilaren 2an, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren urteurrena da, eta 1967tik egun honetan, Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzen da. Egun honen helburua, irakurzaletasuna suspertu eta hurrek liburuekiko interesa garatzea da.

Aizkibel liburutegiak prestatu duen egitarauko ekitaldiak bihar bertan hasiko dira, eta apirilaren 8ra arte luzatuko dira. Antzerkia eta erakusketa bat izango dira, besteak beste.

Erakusketa, Andersenek idatzitako ipuinetan oinarritutako erakusketa izango da. Erakusketa bost panelek osatzen dute, eta bertan Andersenek hamar ipuin eta hauetan oinarritutako hamar ilustrazio agertzen dira, Lorena Martinez Oronez egindako ilustrazioak dira guztiak.

Erakusketaren helburua, Andersenek ipuingintza hurrei hurbildu eta ezagutaraztea da. Hurrek paneletan dauden irudi eta ipuinak ikusi eta irakurri ostean, marrazketa txokoan eta irakurketa txokoan hainbat ekimen egiteko aukera izango dute.